

LAĀRAMENDIREN IZTEGIA (1)

Gaur eguneko jakintsuak Laramendirenean ontzat artzen dutena

Gaur zuen aurrean itzegiteko aukeratu dedan gai au, alpeña ta paragaña idurituko zaio jakintsuren bati. Lařamendiren iztegi ofetaz ezer onik esan al diteke? Furfuriaka ta aize-poteka asiko dira noski. Bai nai ba dute. Ořako gaurko jakintsu ařo oiek esan dutena irakuri ta ere, Lařamendik zerbait erakutsi dit, neri beintzat.

Lařamendiren lana aundia da, asi izatea besterik egin ez ba lu ere. «Asiak egiña dirudi, egiñak uře gořia» dio esaera zařak, eta Lařamendi asi zan eta Lařamendiri zor diogu, balin ba da, orain dakigunetik asko.

Zer izan zun Lařamendik okerik edo oztoporik aundiena? Gaur eguneko jakintsu oiek dutena berbera. Bai, alegia, diote, euskera izkuntza berekia da, orain-dañokoan etzaio seniderik edo gurasorik edo aiderik azaldu; baiña asten dira euskera itz bakoizka ta esaera bakoizka lařutzen, eta ez diote lařurik, ez mamirik, ez ezurik usten : lapuřetakoa dula-ta kendu egiten diote bere izate guzia.

Lařamendik ordea, guzia euskeratik atera zigun. Ba dakite, noski, orain itz au edo beste ori euskerari kendu nai diotenak, gauza jakiñik ez ditekela askotan

(1) Lan eder au, A. Lafamendiren jaiotefian, Andoain-en, euskal-jakintsu ofen omenez egin ziran jaietan irakufia da.

esan. Euskeraren itz au latiñetik ote da? beste alako erderatik ote da? Itz batzuk ba dira agirixkoan andik artuak, beste batzuk antza dute, ta beste batzuk ba lutelazkoa. Azkeneko ok, diodana, gauza jakiñik ageri ez ta ere, atzimurka atzimurka kendu egiten dizkiote euskerari.

Ta Lañamendik berak ez al zekin, ez al zan oartu euskeran itz arotz asko sartu zala? Bai noski, baiña iztegian bakoizka jartzean, euskerari egokitzen dizkio: bere alde, alegia... oraingo jakintsuak bezelaxe. Biotzak darama euskeraren alde itzegitera, ta ez da pekatu lañi laña.

Ez ordea neri iduritzen beti beti benaz eta egiz ari danik. Lañamendi askotan beraizik ari da; bere buruaren gaiñetik ere para egiten du; zergatik ez Mayans' en edo Armesto'ren lepotik? Nonbait esan zun berekiko. Nik esana gorabera, atzeritar oiek ez dite begi emango ala dan ez ote dan. Etzeukaten aintzat euskera ta ikasteko asmorik ez iñork. Esan dezadan bada olako ta alako, ta ni nagusi. Ez al zaizue iduritzen?

Lañamendiren eta euskeraren etsaiak, nai zutena esateko, aboa jabe zuten; eñi asto bat giñela euskaldunok: «asna nación»; izkuntza tartaila, arlotea, gozakaitza gendula; geron eñiaren jabe giñela adierazteko asmatu gendula, ta nik dakit zenbat olako astakeri. Auzi otan gertatzen dana, bear baiño auñerarego sartu, bear baiño geixego berotu, batzuk eta besteak ere.

Baiño Lañamendik ez al zun siñisten berak iztegian elkañen ondozka ipiñitako itz oietan bat bakara ere euskerarena e-tzanik? Ez egieki. Ikus zer dion: «euskerari erauntsi zaizka gaztelaniatik, latiñetik edo beste izkundeetatik itz asko, baiña adituaz ta oituaz, euskerazkoa bezin ongi aditzen diranak; eta itz oriek

utzi bear ezfitugu, ta bear-bada noiz edo beriz obeko da onelakoak usatzea euskerazkoak baño, batez ere Eliz-gauzetan eta gure animen salbazioari dagozten egikariefan. Lajatuko ditugu erbesteko itz oriek, nai ba degu, gure euskerarenak pixka bana usatuaz ta erabiliaz, eskukoi ta jakiñak egingo diranean. (Aita Mendiburu'ri euskeraz, Loiola'tik, 1747'gar'en urtean).

Baiña—esan lezake norbaitek—: or esandako ori iztegiaren barnen nola aztu zitzaion?— Etzitzaion aztu, adiskidea. Iztegiaren itzaurean edo saferan ederki erantzuten dio Mayans jaunari. Edozein izkuntza, bat eta bera izateko, ez omen da gauza beara, beti itz batzuk izatea: galdu omen litzake banaka banaka guziak, eta alare izkuntza oren joskera, tajua, berdin gelditu ezkeru, lengoa omen da. Ederki esana; baiña luzatuko ba naiz ere, Lar'amendiren beraren itzak aterako ditut, erderatik euskeraratuta. Oker ari zera Mayans, eta adieraziko dizut beingoan. Esate baterako, *alako* gizon ez da *alako*, aragi zati auek edo beste oiek ditulako; zati oiek bizten ditun anima bat bera dalako baiño. ¿Ez al dira bat Peru gizen dagonean eta mei dagonean? gazte zanean eta zartu danean? besoduna naiz besamotxa danean? Gaztetandik aragia aldatuko zitzaion noski, ta badakigu, odola beritzen dan bezela, aragia ere beritzen dala osotara, urte asko gabe. Peru ez al da lengo Peru, aragi bera ez izanagatik? Berauxe gertatzen da izkuntzetan ere. Itzak aragia bezela dira; aragia aldatzen dan bezela aldatu ditezke, osotara ere galdu ditezke; baiño izkuntza, izkera, izkuntza oren joskera, tajua, arnasa, au da, anima, len bezela geldi diteke. Adieraziko al digu bada Mayans'ek, euskerak itz banaka guziak galdu ba litu ere, euskeraren joskera, arnasa, anima, galdu dala? Au dio Lar'amendik. Eta beste nonbait. Euskalki

bakoitzak, Napañoakoak, Bizkaiakoak, Gipuzkoakoak Lapurdikoak, Zuberokoak, itz asko bakoitzak eta bereak izan afen ¿ez al dira guziek euskera?

Atozkit, Mayans, Izañaitz mendi ondora, ta esa-idazu. Ukatu al dezakezu mendi au zaña dala?—Ez noski. Baiña nik esango dizut. Olako ta alako arkaitz arobi, tartaka, lañatz, osto, zoko, aspaldi aspaldiko urte aietakoak nun ditu? Zure ariora, Mayans jauna, ezin dakiguke Izañaitz mendi au orain mila urteko ura bera danik. Ikus nora zaramazkian zere burubide ofek? Zu ere lengoa bera al zaitugu? lengo besoak, zangoak, aragiak al dituzu? Zati batzuk batzuk galdu ba dituzu ere, edo aldatu bazaizkizu ere, lengoxea zera, orain ogei urtekoa zera, ordun baiño jakite geixegorekin, eta baita euskerarenganako griña txar geixegorekin ere. Euskera lengoa ez danik ez diteke bada esan, itz guziak banaka banaka aldatu ta galdu ba litu ere. Lengo tajua, joskera, borobiltasuna, arnasa, aski ditu lengo izkuntza izateko. Ikus berak erderaz nola dion, ni nere burutik ari naizela noribait iduri ba zaio: «...una lengua viva es determinada tal, por su forma determinada, esto es, por su arte, construcción y armonía, y por estas y las otras voces que pueden coordinarse con aquella determinada construcción, arte y armonía, de manera que para que el vascuence sea determinadamente tal, es preciso que sea una misma su forma, esto es, su arte, coordinación y armonía; pero no es preciso que sean unas mismas sus voces, y teniendo una vez el vascuence las voces bastantes para ejercitar su arte, construcción y armonía, puede adquirir otras, perdiendo las primeras, y mantener su inmutable armonía». (CLXXIV). Nork esan du au gure egunetan ere Larāmendik bezain egoki?

Galdegiten du Lařamendik Mayans'en kontra, ia bosteun urteren buruan izkuntza bat bera izan ote diteken, eta gogor ekiten dio etsaiari. Mayans'en iritziz, izkuntzak ibaien antzera jo ditezke: izena aspaldikoa dute (esaterako Leizařan, Oria, Urumea), baiño dijoan ura ez da ordukoa; aldiero beřia da, beřitzen ari da. Alaxen izkuntzak ere.—Oker ari da Mayans, dio Lařamendik. Nik izkuntza, gizonaren antzera jotzen det: ba du gorputza, ba du anima; gorputza itzak osatzen dute; anima, itz oien alkar-bidea, joskera da. Ta au berdiņa izan ezkero, izkuntza berdiņa da, josi-gaiak lengoak ez izanik ere. Ario ortara, Mayans jauna, bosteun urteko gizon bat ez diteke izan berbera. Noe gizagajoa bosteun urtetan, iru seme izan zitunean, ez al zan Lamek'en semea? ta gero seireun urtetan, ugalde aundia gertatu zanean, beste bat al zan? Ta Noek seireun urtetan itzegin zun izkuntza e-tzan beaz umetandikoa bera?

Euskera ainbeste urteren buruan argalduko zala; bai, baño ez al du iraun lengo berean? ez al du lengo egitea, lengo tajua, ez al ditu lengo ezur-giltzak, ez al du lengo arnasa, lengo anima? aragitan berdiņ ez ba dago ere?

Euskera, eguzkiaren jaiotaldeko izkuntzaki bat, adaki bat dala esan zigun Mayans'ek, Tomasinorengandik ikasita. Euskera naiz beste edozein izkuntza, astiroki itzegin ezkero, hebreo dakin batek ulertu edo aditu omen dezake ¿Bai?, dio Lařamendik. Atozte bada olako jakintsuok, nik itzegino ditzuet, eta geldi geldi itzegin ez ezik, baita idatzirik utzi ere, ta ikus zer aditzen dezuten. Eta gure Lařamendi euskeraz asten da bero bero, erderazko itzaurean. Beraren itzak aterako dizkizuet. Orain ontzat ematen ez ditugun esaera batzuk ba ditu, baiño, aiek bereix, gaurko

euskerarik obeenari ere ez dio zor aundirik. Mingari da, Larāmendik euskeraz idatzirik geio ez utzi izatea. Mendiburuk eta baiño obeto egingo zula iduri zait. Oraingo euskaldunok ere askok alde-aldera egiten degu, itzak Larāmendik bezain aukeratu bage. Itz bakoitzak bere adieraztea ba du, ta itzegitekoan besterengandik ondo bereizten ez ba degu, bakoizten ez ba degu, euskera motela aterako degu. Entzun bada Larāmendiren itzak :

Euskaldunai Osasuna

«Uste deu gure Urliak (aditzen nazu nori nagokan, begira ez ni salatu), badakiela dana ta datekean guzia, onako latifinezko zerenda batzuk irabiatu dituelako. (Mayans'ekin ari da CXCII). Aiiñ aro dabil, ain da bere buru, ain berez ta bere buruz betea ta uanditua dago, non dirudien, iñor ere ez daukala ezertan, naiz dala aundi, naiz txiki. Euskara da, gaitzik egin ba lio bezela, aren erabea, eta saietsefik, euskaldunak ere bai. Itsuen gisa jo ezak emen, jo ezak or, bere ustez zeatzen, zaitzen, banatzen deu gure hizkuntza eder, guri, gozoa. Iñarusi bear genduke guziok hizjario, erausle, motel au, ta onen lagun irurazaiak Ondo ba legokit, nik asfinduko nuke, nik beeratuko nioke bere andiustea ta bere galdor kizkur luzea. Niri eztagokidanean (ez baitagokit), beste euskaldunen batek itxeki bear lioke sail oni, iñon diraden etsai hitzontziak isiltzeko. Baiña ez bide du euskera gaixoak, are bere etxapean (bere etxapean ere) ez seme, ez adiskide, blotz onez nai dionik : ta argatikan daude guziak ain geldi, ain ixil, eskuak tolesturik, naiz beztu ta itxuskitu dezatela, naiz darabiltela oñen azpian.

Badaraskio bada gure sandiari, ezen, eguzkiaren

jaiotaldean diraden hizkerak dakitzan batek, eřaz adituko duela euskeraz; ta gezurtxo batekin ori siñist-erazo nai izan digu. Uz-tak, ařen, onela nagokian. Len ama-kia egin diguk gure hizkuntza, ta orain alabakia, bein txuri ta gero beltz. Noiz utziko dek buru-koloka fařagafi ori? Edo bata esan bear dek edo bestea: eta esanari el akio (eldu iok), zabuan ibili bage. Ona non ditu(k)an euskarazko hitzak naroro. Nai ba dek oa, ta eguzkia sortzen dan aldetik erakark nai de(k)ana. Esaiok, begira ditzala irekin batean naiz aurkez, naiz atzez, goitik, beetik, zearka edo zuzenka; eztek berdiñ idoroko (arkituko) bere eřiko hitzen antza deuanik, ta are gutxiago igeřiko, itsuka ba da ere, zer esan nai deuan. Eztanda ba dagik ere, gure euskera edeřa, lenbiziko hizkuntzetatik dek, arako Jainkoak maneatu ta ixuri zituen aietatik, ez beste hizkundeen naspilatik sortua. Euskera dek Españian lenengo sartu zana, eta aren bazter guzietan (ala uste du Lařamendik) era batean eta luzaro txit hitzegiten zana. Zartu dek, atsotu dek (eztek hitz au erdaraz esango); ainbeste urteren eñean atsotu bear; baña itxok, oraindikan bizkořa zeagok, gaztetzera zeak, ba zeakik bere burua txukunkiro edertzen, galantzen, apaintzen. Ezteza(k)ala beraz uste, hire esan mesanakin hire lotsageriakik ikaratu ta txokor-atuko de(k)ala euskera.

Utzi diozagun Mayans'i jakiundeko maian janari onik isinten ezfigunari ezpada lapiko ustel bat, arbiz, azaz, txongoz, birikakiz, hitz batean zadura-baduraz beteaz». Oneraño Lařamendik.

Bai, euskera bizkor dago, gaztetzen ari da, betiko gaztetasunaren eřoa berekin dauka. Gizona bein oso eldu ezkerok, ez da geiago azitzen; urte batzuetan bere batean dago, ta gero beeraka asten da, xurtu ta

zalkortu ta il arte. Ez ordea izkuntzak, ez ta ere euskera. Ta bizitzea, nola-ala bizitzea, ez da aski, beretik bizitzea ta azitzea baiño. Euskerak berekin du azigafia, ernetzeko indafia, ez du ingurukoak bezela bestetara jo bear bizitzeko. Au ez da Lañamendiren aoberokeria, ez ta nik asmatua ere. Euskeraren erne-indar ori ikus nola adierazten digun gaurko García de Diego'k: Eziñ uka diteke—zion Azkue jaunari erdel-Akademian erantzutean—ezin uka diteke, European orain diran izkuntzen artean oinbeste goraberetan edo aldartetan, bizirik irauteko, bere izaera bereziak, bere a'otz-antza o'rek asko lagundu diola euskerari; baiño ori ez da aski, euskerak bere barnean daukan bizi-indafia, erne-indafia ez ba lu. Euskera, besterik ez bezain ernazua da : izkuntza bizien artean bizienetako. Gezuña dirudi, aspaldiko gauzetara ain idukia ta itsatsia dan izkuntza au, inguruan dauzkanak baiño berizalego ta erne-ga'figo izatea. Inguruko e'roma-izkuntza antzu oiek, astiroki ta bildu'ez aberasten dira, latiñ amak utzi dien ondarearekin : euskerak ordea, berak borobiltzen ditu besteren bearik bage, nondinai artutako gaiak, berak oratzen ditu, Azkue jaunak ain egoki dionez. Entzun erderaz beraren itzak : «...es innegable que su exotismo formal entre las (lenguas) europeas actuales, le ha creado una situación de privilegio para subsistir a través de tantos siglos y vicisitudes, supervivencia que no se explicaría por las solas causas históricas sin atender a sus condiciones biológicas... La independencia formal y la falta de conexión con otras lenguas, ha contribuído, no sólo a mantenerlo, sino a desarrollar el carácter, para mí más saliente, de su vitalidad. El vascuence es, en este sentido, una lengua excepcionalmente productiva, una lengua viva por excelencia. Por una

singular paradoja, este idioma, que tanto arraigo muestra a la tradición multiseccular, es entre los que le rodean el que con más libertad innova y produce nuevos elementos. Rodeado de hablas románicas que tan pobre vitalidad germinativa muestran (ernetzeko indarra), y que tan lenta y tímidamente acrecen con la derivación de la herencia latina, el vascuence tiene el don singular de multiplicar libremente sus voces, de maznar, como con gráfica expresión dice el señor Azkue, cuantos elementos están a su alcance» (39-40).

Itzok ez dira Larāmendirenak, baiño bereun urtez aurētik oinbeste itxura bage esanik utzi zigun orixe bera.

Larāmendiren itzaurēa ez det osotara arōtu, atximurkatu besterik ez det egin, eta ez bearik ere, ez baitzaituet aspertu nai.

Euskera, Larāmendik esan bezain aberatsa al da? Bai jaunak, berez ala da, *per se*, Larāmendik dion bezela: oraingoz edo bein beingoz (*per accidens*) uria balitz ere. «Lenguas apocadas» izkuntza aulak omen dira gure inguruetakoak gurearen aldean. García de Diegok esan du ori, Larāmendik ez eze. Zer aberastasun du euskerak? Ez diru txearen aberastasuna, ondasunena baiño. Zer palta du gaur euskerak? Diru-ale ori, eskuetako alda-dirua, edo erdal-itx mordoiloaren bidez esaten deguna: *ganbio-ak*. Erōzko edo ondozko aberastasunak ba ditu ugari euskerak. Ganbio oietxen bearean arkitzen gera euskaldunok, bila ibili ez geralako. Noiznai'ko burutapenak adierazteko indarra ba du euskerak, baiño gaur-gaurko artu-emanetan, gaurko asmaketa, buru-zirikeri ta gogapenak adierazteko *ganbio* batzuen bearean arkitzen da. Eskueta alda-diru ori bear du, ta ori bein beingo gauza da; ori ez da berez aberastasuna.

Erabili dezagun bada, oitu dezagun gure euskera edozer gaitan, nolanaiko buruaren artu-emanetan, eta Larāmendiren esana egi aterako da.

Sales'ko Prantzisko santuak esan oi zun, ordu erditik aruntzagoko itzaldiak biotzari ez baiño egon-afiari edo ipur-mamiari eragiten ziola. Ori Jaungoikoa-aren itza entzutean gertatzen ba da, areago nerea bezelako itzaldietan.

Oinbesterekin, jaunak eta andreak, nere esan-beafa esanik nago.

ORMAETXEA'TAR NIKOLA.
